

Harresiak Apurtuz, 20 urte

Elkartasunean bizitzea, euskal gizartearen eragile


- Harresiak Apurtuz, etorkinei laguntza emateko GKEen Euskadiko Koordinakundeak, 20 urte bete ditu, immigrazio arloan Euskadiko erreferente nagusi izanik
- Koordinakundeko kide diren 63 gizarte erakundeek bermatzen dute sarearen eragin politiko eta soziala eta bere jarduera eta posizionamenduekin bat egiten dute.

Bilbo, 2017ko azaroa

Harresiak Apurtuz erakundeak 20 urte bete ditu, EAEko immigrazio arloko erreferente garrantzitsu bihurtuta. Gainera, euskal erakundeen artean ospe handiko eragilea da. 1997an sortu zen eta denbora honetan politikan eragiteko eta sentsibilizatzeko lanean jardun dugu, lortu nahi dugun gizarte motaren ikuspegi argiarekin: gizarte irekia, anitza, bidezkoa eta berdintasunezkoa, elkarbizitza erreala eta eraginkorra izateko. Bi hamarkada hauetan ikasi dugu berdintasunezko elkarbizitza dela edozein gizarte moderno eta demokratikok funtzionatzeko behar duena.

Berdintasun arloko politika publikoak

Hala ere, urtez urte, atzerriartasunari dagokionez, Legeak inflexio-puntu zorrotza markatzen du. Horrekin batera, austeritate politiken izenean martxan jarritako eskubideen murrizketa etengabeak berdintasunari bete-betean erasotzen dio. Gainera, garatutako politika publikoak diskriminazioaren oinarriaren gainean eraikitzen direnean, elkarbizitza benetan zaila da. Europara begira, Harresiak Apurtuz erakundeak kezka handiz bizi du aro modernoan gertatutako krisi humanitario handiena. Asilo eta immigrazio arloko Europako politikak nazioarteko itunak guztiz urratzen dituzte eta milaka gizakiren heriotza eta mina sortzen ari dira; beren herrialdeetatik segurtasun eta aukera bila ihes egiten ari diren pertsonena, hain zuzen. Estatu mailan, krisi ekonomikoa aitzakia da oraindik ere austeritate politikak aplikatzeko, eta Ongizate Estatua kolokan jartzen dute: desorekak murriztu eta berdintasuna sustatzeko oinarri nagusi izan beharko lukeena.



EAEko desorekak

Gainera, ikusten ari gara EAEko gazte etorkin askoren garapen profesional eta pertsonala oztopatuta geratzen dela, babes soziala emateko sistema sendorik ez dagoelako, beste gauza batzuen artean, hezkuntza eskubidea bermatzeko. Negua gainean dugu, eta erakunde askok baliabide eta dispositibo bereziak jarriko dituzte martxan pertsona horiek oinarritzeko beharrezkoak estalita izan ditzaten saiatzeko. Gaur egun, EAEko pertsona asko bizi dira doako osasun zerbitzurik gabe eta sendagaiak ordaindu ezinik. Beste batzuek, traba administratibo ugari egin behar izaten diete aurre beren eskubideak egikaritzeko; etxebizitza duin bat edo lanpostu bat lortzen saiatzeko, esaterako. Politika publikoek ez dituzten pertsonak eta horien eskubideak ardatz moduan hartzen, eta egunero ikusten ditugun egoera horiek horren ondorio dira.

Sareko lanaren balioa

Harresiak Apurtuz erakundearen ezaugarri nagusietako bat sareko lana da. Inoiz baino beharrezkoagoa da gaur potentzial horri balioa ematea; Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legeak bi urte beteko ditu 2018an eta gertaera garrantzitsu bat da Hirugarren Sektore Sozialak eragile gisa daukan errekonozimendua aitortzea, demokrazia parte-hartzaile baten testuinguruan. Lasaigarria da jakitea parte hartu eta borrokatu dugun espazio horiek bizirik daudela, lanean jarraitzeko.

Lan politiko eta sozialean kontuan hartu beharreko beste aspektu bat zera da: 63 erakundek eta horien atzean dagoen gizarteak sarearen ekintza, jarduera eta posizionamenduak babesten dituela. Konpromisoa eta parte-hartze aktiboa funtsezkoak dira gure eragiteko gaitasuna sendotzeko, eta denon artean zaindu eta sustatu beharreko errealitatea dira. Harresiak Apurtuzek aurrera jarraituko du, mugitzen eta erakunde guztiokin batera bidea egiten, horiek baitira gure benetako balioa. Bihotz guztien aldebereko taupada mantentzen duena da amestu dezakegun mundurik onena.

Kontaktua

Naiara Vink Larruskain

695 16 98 26 / 94 642 10 65

komunikazioa@harresiakapurtuz.org / www.harresiakapurtuz.org